

## **LEHENENGO ARIKETA: A ATALA**

**1- GAIZKI DAUDEN PARETAK BERRIRO PINTATZEKO PRESTATZEKO UNEAN, ESKURA DUGUN PINTURA SINTETIKOA IZANGO BALITZ, HAINBAT JARDUERA EGIN BEHARKO LIRATEKE...ZEIN DA OKERRA?**

- A. Pintura disolbatzaile kimikoz desugertu.
- B. Gaizki itsatsitako pintura kendu, errasketara, lixa, eta abar erabilia.
- C. Pintura kentzean sortutako hondakinak ur eta xaboiarekin garbitu.
- D. Produktu finkatzaile bat eman, paretaren inperfekzioen gainean.

**2- ATE BAT MARKO BATEAN JARRI BEHAR BADUGU, HONELA EGINGO DUGU:**

- A. Gontzak markoan finkatuko ditugu, eta orpoak atean.
- B. Orpoak markoan finkatuko ditugu, eta gontzak atean.
- C. Pernioak markoan finkatuko ditugu, eta gontzak atean.
- D. Erantzun guztiak okerrak dira.

**3- ADIERAZI AUKERA HAUEN ARTETIK ZEIN DEN ZUZENA:**

- A. Alkatea, alkateordeak eta udalbatza 5.000 biztanletik gorako udalerrietako udaletan daude.
- B. Alkatea, alkateordeak eta udalbatza udal guztietan daude.
- C. Tokiko Gobernu Batzarrak alkatea ordezkatzeko du, 5.000 biztanletik beherako udalerrietan.
- D. Kontuen Batzorde Berezia 5.000 biztanletik gorako udalerrietan dago.

**4- FOTOKOPIAGAILU BATEN “ZOOM” MEMORIA ZERI LOTUTA DAGO?**

- A. Erreprodukzioaren abiadura.
- B. Kolorearen intentsitatea.
- C. Tamaina handitzeko eta txikitzeko funtzioa.
- D. Gris gamaren intentsitatea eta kontrastea.

**5- HONAKO HAUEN ARTETIK, ZEIN DAGOZKIO BALBULA-KATEGORIEI?**

- A. Uhatekoa.
- B. Estutzekoa.
- C. Diafragmakoa.
- D. Erantzun guztiak zuzenak dira.

**6- BI ASTOREN GAINEKO LAN-PLATAFORMA BATEAN, ZEIN DA ARDATZEN ARTEKO GEHIENEKO BERME-DISTANTZIA?**

- A. 3 m.
- B. 2,5 m.
- C. 2,40 m.
- D. 2 m.

**7- ESPAINIAKO ESTATUAREN HIZKUNTZA OFIZIALA GAZTELANIA IZATEAZ GAINERA, ESPAINIAKO GAINERAKO HIZKUNTZAK OFIZIALAK DIRA?**

- A. Ez, dialektotzat hartzen dira.
- B. Bai, Espainiako lurralde osoan.
- C. Bai, dagozkien autonomia erkidegoetan, beren estatutuen arabera.
- D. Bai, lurralde historikoetan.

**8- BISAGRAK ETA PERNIOAK BEREIZTEN DITUZTEN EZAUGARRIEI  
DAGOKIENEZ, ZER BAIIEZTAPEN DA ZUZENA?**

- A. Bisagrek orria ateratzeko aukera ematen dute, elementua desmuntatu gabe.
- B. Pernioek orria ateratzeko aukera ematen dute, elementua desmuntatu gabe
- C. Pernioek mugimendu oszilatzailea eta zabukaria ahalbidetzen dute.
- D. Bisagrek mugimendu oszilatzailea eta zabukaria ahalbidetzen dute.

**9- PALETAK, PALETINAK ETA JUNTURA GARBITZAILEA BEZALAKO  
ERREMINTAK ZER NOLAKO LANETAN ERABILTZEN DIRA?**

- A. Estaldura-lanetan.
- B. Fabrikako obretan.
- C. Berdinketa-lanetan.
- D. Kofratze-lanetan.

**10-FLUXUMETROAREN PALANKARI EDO SAKAGAILUARI ERAGITEN  
DIOGUNEAN, ZEIN DA URAREN DESKARGA ERAGITEN DUEN PIEZAREN  
IZENA?**

- A. Gida.
- B. Txiklea.
- C. Deskargatze-pistoia.
- D. Desorekatze-balbula.

**11-ZEIN DA SUTEEN AURKAKO UR-BILTEGIEN BARRUALDEA MARGOTZEKO  
PINTURARIK EGOKIENA?**

- A. Kola-pintura.
- B. Kare-pintura.
- C. Silikato-pintura.
- D. Klorokautxo-pintura.

**12-ZER IZEN DU SERIE BEREKO SARRAILA GUZTIAK IREKITZEN DITUEN GILTZAK?**

- A. Giltza adimenduna.
- B. Segurtasun-giltza.
- C. Gakorde-giltza.
- D. Orotariko giltza.

**13-ZERTARAKO BALIO DU GONIOMETROAK?**

- A. Distantzia luzeak neurtzeko.
- B. Angeluak neurtzeko.
- C. Eskalak kalkulatzeko.
- D. Berdintze bertikalak topatzeko.

**14-ADIERAZI FLUXUMETROARI BURUZKO PROPOSIZIO ZUZENA:**

- A. Karga-elementu bat da, automatikoki ixten ez dena.
- B. Deskarga-elementu bat da, eskuz ixten dena.
- C. Karga-elementu bat da, automatikoki ixten dena.
- D. Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

**15-BIGARREN ARTIKULUAREN ARABERA, MARTXOAREN 22KO 3/2007 LEGEAN EZARRITAKO BETEBEHARRAK:**

- A. Sexuagatiko diskriminazio positibotzat jotzen dira.
- B. Espainiako lurraldean dagoen edo jarduten duen pertsona orori aplikatuko zaio, pertsona hori fisikoa nahiz juridikoa izan, eta horren naziotasuna, egoitza edo bizilekua edozein dela.
- C. Emakumeen diskriminazioaren aurkako ekintza positiboko neurriak dira.
- D. Aukera-berdintasuna bermatzen dute.

**16-PINTURA-LATA BATEAN IRAKUR DAITEKEENEZ, PINTURAK  
PLASTIFIKATZAILEAK DITU GEHIGARRI GISA. ZEIN DA HAIEN FUNTZIOA?**

- A. Pinturaren malgutasuna hobetzea, euskarriaren mugimenduetara hautsi gabe egokitu dadin.
- B. Lehortzeko denborak laburtzea.
- C. Pinturari nolabaiteko iragazgaiztasuna ematea.
- D. Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

**17-HAUETAKO ZEIN EZ DA SARRAILA MOTA BAT?**

- A. Landatzeko sarraila.
- B. Ate gaineko sarraila.
- C. Sarraila hariztatua edo doigarria.
- D. Gorjazko edo borjazko sarraila.

**18-ZER IZEN DU ERREMINTA HONEK?**

- A. Punta-zizela.
- B. Zizela.
- C. Igeltsu-punta.
- D. Burila.



**19-ZER DIRA TXARRANTXAK?**

- A. Barautsak.
- B. Alanbrezko eskuilak.
- C. Limak.
- D. Arraspak.

**20-ANTZOKI BATEK SARRERA GUZTIAK SALDU DITU EMANALDIRAKO. HIRU ATE BERDIN DITU. BI IREKITZEN BADIRA, PUBLIKOA 18 MINUTUTAN SARTZEN DA. ZENBAT MINUTU BEHARKO DITU PUBLIKOAK SARTZEKO, HIRU ATEAK IREKITZEN BADIRA?**

- A. 15.
- B. 27.
- C. 12.
- D. 10.

**21-ADIERAZI LANEKO EKIPOEI BURUZKO BAI EZTAPEN HAUETATIK ZEIN DEN OKERRA**

- A. Ez dira erabili behar fabrikatzaileak kontraindikaturako forman, eragiketetan edo baldintzetan.
- B. Fabrikatzaileak aintzat hartzen ez dituen eragiketetan edo moduan erabili ahal izateko, aurrez horrek ekarriko lituzkeen arriskuen ebaluazioa egin behar da, eta horiek ezabatzeko edo kontrolatzeko neurri egokiak hartu behar dira.
- C. Ezin izango dira erabili kasuan kasuko eragiketa egiteko aurreikusitako babes-elementurik gabe.
- D. Ez dira erabiliko ingurune berezietan, hala nola lokal bustietan edo eroankortasun handiko lokaletan, sute-arrisku handiko lokaletan, atmosfera leherkorretan edo giro korrosiboetan.

**22-ZER KAUSAREN AURREAN JARTZEN DA MARTXAN ETENGAILU DIFERENTZIAL BAT KOADRO ELEKTRIKO BATEAN?**

- A. Zuzeneko eta zeharkako kontaktuen, zirkuitulaburren eta deribazioen aurrean.
- B. Zuzeneko eta zeharkako kontaktuen eta deribazioen aurrean.
- C. Zuzeneko kontaktuen, zirkuitulaburren eta deribazioen aurrean.
- D. Zirkuitulaburren eta deribazioen aurrean.

**23-BASAURIN DAUDEN ARRAPLA MEKANIKOAK ZER KALETAN DAUDE?**

- A. Axular.
- B. Marcelino González.
- C. Basozelai.
- D. Landa Doktoreak.

**24-HARGINTZAKO LANETARAKO MAILU BEREZIARI NOLA DEITZEN ZAIO?**

- A. Pikotxa.
- B. Eskoploa.
- C. Mutxarda.
- D. Egozkailua.

**25-BARAUTS KIRIBILEK MOZTEN DUTEN MATERIALA KANPORATZEKO GUNE  
BAT DUTE. NOLA DEITZEN ZAIO?**

- A. Gorputz helikoidala.
- B. Kirtena.
- C. Punta edo ahoa.
- D. Zurtoina.

**26-ZER KOLORETAKOAK IZANGO DIRA FASE-KABLEAK INSTALAZIO  
MONOFASIKO BATEAN?**

- A. Urdina edo gorria.
- B. Berdea, gorria edo marroia.
- C. Zuria edo horia.
- D. Marroia, grisa edo beltza.

**27-ANDER, LANDER ETA AITOR LAGUNAK DIRA ETA 600 EURO IRABAZI DITUZTE GABONETAKO LOTERIAN. HIRU DEZIMO JOKATZEN ZITUZTEN: ANDERREK 12€ JARRI ZITUEN, LANDERREK 15€ ETA AITORREK GAINERAKOAK. DEZIMO BATEK 20€ BALIO DUELA KONTUAN HARTUTA, ZENBAT KOBRATU BEHAR DU AITORREK?**

- a) 350 euro.
- b) 270 euro.
- c) 300 euro.
- d) 330 euro.

**28-HORMIGOIAREN AKABERA EGITEKO ERREMINTA EGOKIENA DA:**

- A. Palaustrea.
- B. Plana koskaduna.
- C. Talotxa.
- D. Espatula.

**29-ZEIN DA MODURIK ONENA KOLA-PINTURAREKIN ERABILITAKO ARRABOLAK GARBITZEKO?**

- A. Landare-olioz garbitzea.
- B. Disolbatzailez garbitzea.
- C. Agoarrasaz garbitzea.
- D. Txorrotako urez garbitzea.

**30-ADIERAZI ZEIN DEN OKERRA GAZTELANIAZ:**

- A. "Nos informé de que llegaría tarde".
- B. "No me gusta de que vengas tan tarde".
- C. "Soy consciente de que no he hecho un buen examen".
- D. "Tengo la certeza de que al final llegaré".

**31-IKASTETXEAK EBAKUATZEN DIRENEAN, HORNIDURAK  
DESKONEKTATZEKO ARDURA DUTEN PERTSONEK ZER ORDENARI  
JARRAITU BEHARKO DIOTE?**

- A. Elektrizitatea, gasa, gasolio-hornidura eta ura.
- B. Gasa, elektrizitatea, gasolio-hornidura eta ura.
- C. Gasa, gasolio-hornidura, elektrizitatea, eta ura.
- D. Gasa, elektrizitatea, ura eta gasolio-hornidura.

**32-FLUORESZENTZIAKO LUMINARIA BATEAN, ZER APARATUK SORTZEN DUTE  
ARGIA?**

- A. Balastoak.
- B. Lanparak.
- C. Abiagailuak.
- D. Pitzarazgailuak.

**33-ZEIN IZAN DAITEZKE IGELTSERO-AITZURRAREN MUTURRAK?**

- A. Pikotxa – Pala.
- B. Aizkora – Pala.
- C. Pala - Stanley burua.
- D. A eta B erantzunak zuzenak dira.

**34-HITZ HAUETATIK, ZEIN EZ DAGO ZUZEN GAZTELANIAZ IDATZITA?**

- A. “Visón”.
- B. “Ariete”.
- C. “Évano”.
- D. “Calabacín”.

**35-SU-ITZALGAILU MUGIKORRA...**

- A. Diseinatuta dago eskuz eraman eta erabil dadin, funtzionamendu baldintzetan haren gutxieneko masa 20 kg-koa izanik.
- B. Diseinatuta dago eskuz eraman eta erabil dadin; gurpilen gainean muntatuta dago, eta haren masa osoa 20 kg-tik gorakoa da.
- C. Diseinatuta dago eskuz eraman eta erabil dadin; gurpilen gainean muntatuta dago, eta haren masa osoa ez da 20 kg-tik gorakoa.
- D. Diseinatuta dago eskuz eraman eta erabil dadin, eta funtzionamendurako baldintzetan haren masa 20 kg-koa edo hortik beherakoa da.

**36-HAUETAKOREN BAT EZ DA ARGIZTAPEN-LANPARA BAT, ZEIN?**

- A. Presio handiko oxigenoa.
- B. Halogenuro metalikoa.
- C. Goritasuna.
- D. Presio handiko sodio-lurruna.

**37-URA DARAMAN HODI BATEAN, ALTUERA HANDITU AHALA, ZER JAISTEN DA?**

- A. Biskositatea.
- B. Abiadura.
- C. Presioa.
- D. Tenperatura.

**38-ZEIN DA ZURA ESKUZ LIXATZEKO NORABIDE ZUZENA?**

- A. Betarekiko tangenziala.
- B. Betarekiko zeharka.
- C. Modu zirkularrean.
- D. Batarekiko luzetara.

**39-BROTXA HAUETAKO ZEIN ERABILI BEHAR DA, AHAL DELA, UR- PINTURAK**

**EMATEKO?**

- A. Poliesterrezko zurdak dituzten brotxak.
- B. Zurda naturalezko brotxak.
- C. Erretxinazko zurdak dituzten brotxak.
- D. Suz tratatutako zurdak dituzten brotxak.

**40-TRESNA ELEKTRIKO BATEAN IKUR HAU AGERI DA:**



**ZER ESAN NAHI DU?**

- A. Bobina.
- B. Fusiblea.
- C. Magnetotermikoa.
- D. Etengailu diferentziala.

**41-EMARIA LEKU JAKIN BATETIK ISURTZEN DEN LIKIDO (UR) KANTITATEA DA.**

**ZER UNITATE ERABILTZEN DA NEURTZEKO?**

- A. Presioa.
- B. Denbora.
- C. Abiadura.
- D. Espazioa.

**42-ZERI ESATEN ZAIO BERUNEZTATZEA?**

- A. Beruna batzea, materiala eta kola erabilia.
- B. Beruna soldatzea, material ferrosoa erabilia.
- C. Beruna soldatzea, materiala bera erabilia.
- D. Beruna beste material batez kolaztatzea.

**43-PARETAK BERRIRO PINTATZEKO PRESTATZEKO UNEAN, ESKURA DUGUN  
PINTURA KOLA-PINTURA IZANGO BALITZ, HAINBAT JARDUERA EGIN  
BEHARKO LIRATEKE... ZEIN DA OKERRA?**

- A. Azalera busti, ur berotan blaitutako brotxa handi batekin.
- B. Azalera leun lixatu, lixa fin batekin.
- C. Pintura hondarrak kendu, belaki, eskuila edo beste tresna batez.
- D. Produktu finkatzailearen geruza bat eman, eta lehortzen utzi.

**44-MAHAIKO ZERRA ZIRKULAR BATEAN ZER FUNTZIO BETETZEN DU AIZTO  
BANATZAILEAK?**

- A. Eskuak zerrara hurbil daitezen saihestea.
- B. Ebaketa-prozesuan zurak pitzadurak izan ditzan saihestea.
- C. Ebaketa-zirrikuitua bereizita mantentzea.
- D. Zurezko pieza ebaketa-mahaian egonkor mantentzea.

**45-ETENGAILU DIFERENTZIAL BATEAN, 16A ADIERAZPENAK ZER ESAN NAHI  
DU?**

- A. Ekin aurretik jasaten duen potentzia.
- B. Ekin aurretik jasaten duen erresistentzia.
- C. Ekin aurretik jasaten duen intentsitatea.
- D. Jasaten duen kurba, zeina potentzia-intentsitate-erresistentzia parametroek  
sortzen baitute.